



686 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko uztailaren hogeita bederatzian.

2009ko ekainaren 18an Udal honetako Alkate-Lehendakari jaunak emandako 551 zk.ko Dekretu bidez Arraguako Plan Partziala idazteko zerbitzua SABAI ARKITEKTOAK, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin-betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantzza eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikuluen 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin-betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean SABAI ARKITEKTOAK, S.L. enpresak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituenek, Arraguako Plan Partziala idazteko zerbitzuaren kontratua SABAI ARKITEKTOAK, S.L. enpresari behin-betiko esleitzea proposatzen da 67.280,00 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 30 eguneko egikaritze epearekin.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

